

Usurbilgo Udala

2017KO URRIAREN 4EAN EGINDAKO EZOHIKO BILKURAKO AKTA

BERTARATUAK

Alkate-Lehendakaria

Xabier Arregi Iparragirre

Zinegotziak

Alaitz Aizpurua Labaka
Jone Urdampilleta Urdampilleta
Iñaki Ugarte Agirre
Miren Josune Estella Arranz
Jose Mari Iribar Zapirain
Josune Urkola Larrarte
Carlos Perez Fraisoli
Fermin Orue-Echevarria Iturri

Idazkaria: Garazi Etxeberria San Miguel

Kontu-hartzailea: Karmele Lizaso Ubera

Pertsonal eta kontratazio teknikaria: Olatz de Miguel Arnaiz

Ezin-etorria adierazi dute: Xuban Zubiria Elexpe, Irene Gartzia Palacios, Mirari Azurmendi Sorazu eta Andoni Atxega San Sebastian.

Arratsaldeko 17:00etan batzarrari hasiera eman zaio.

Usurbilen, 2017ko urriaren 4ean, arratsaldeko 17:00etan, Udaletxeko Pleno Aretoan, Usurbilgo Udaleko ezohiko Udalbatza Plenoa egiteko goian adierazten direnak lehen deialdian bildu dira.

Bertaratuak bezala goian agertzen diren zinegotziak batzarkide direlarik, Xabier Arregi Iparragirre izan da Batzarburua.

1.- ADINEKO PERTSONENTZAKO USURBILGO EGUNEKO ZENTROAREN ERABILERA ETA KUDEAKETA ZERBITZUA EMAKIDAZ KONTRATATZEKO ESPEDIENTEARI ONESPENA EMATEA.

Jone Urdanpilletak hitza hartu du puntu honi buruzko azalpenak emateko.

Gaia Ongizate batzordean diktaminatu zen arren, zuzenketa batzuk egiteko pendiente geratu zela esan du, momentu horretan erabiltzaileen kopurua zalantzan zegoelako.



Usurbilgo Udala

Azaldu du lizitazioa aurtengo azaroan amaitzen dela eta, beraz, berria martxan jarri behar izan dela. Jakitun direla dio Aldundiaren eskumenekoa dela eta kontzertatuta dagoela erabiltzaileen kopurua, baina momentuz plangintza baten faltan Udalak kudeatu behar izan duela eguneko zentroa.

Ikusita ekartzen duen lan karga eta kudeaketa, epe luzerako egitea hobetsi zela esan du, hori horrela, hiru urterako gehi bat gehi bat izango da, guztira bost urterako. Kopurua, BEZa barne, 1.353.144 eurokoa denez, lizitazioa martxan jartzea plenoak onartu behar du.

Prozedurari buruzko azalpenak eman ditu.

Gaineratu du batzordean aipatu zela urte hasieratik Aldundiari eskatuta zutela asteburutako erabiltzaileen kopurua handitzea. Gaur egun, astegunetan 18 erabiltzaile eta asteburutan 6 erabiltzaile dituztela zehaztu du, eta asteburutarako eskaera gehiago dauden arren, ezin zaiela kasu egin esan du.

Aldunditik erantzun dute asteburutarako 6 erabiltzaile gehiago onartu direla. Idatziz jakinarazi duten arren, oraindik Kontseiluan ez omen dute onartu eta, hori horrela, egokiagoa ikusi dela dio lizitazioa gaur egungo kopuruarekin ateratzea.

Hala ere, kontratuaren aurreikusitako aldaketa moduan plegu administratiboetako 13. puntuan txertatu dela zehaztu da.

Josune Urkolak galdetu du ea lizitazioaren prezioan gehituko diren 6 horiek aurreikusita dauden.

Jone Urdanpilletak erantzun dio oraingo 6ak bakarrik daudela prezio horretan, behin gehikuntza onartzen denean kontratu aldaketa batean jasoko direla zehaztu du.

Jarraian, pleguetan jasotzen den moduan, kontratuaren ezaugarriak aipatu ditu.

11. puntua langileen subrogazioari buruz ari dela dio eta oso garrantzitsua dela uste du.

Alkateak galdetu du ea derrigorrezkoa den subrogazioa.

Olatz de Miguel, kontratazio teknikariak erantzun dio Udalak pleguetan sartuta duela sartu dezakeen guztia, baina zehaztu du Udalak inoiz ezin duela guztiz lotesle egin subrogazioa, kontu laboral bat baita.



Usurbilgo Udala

Alkateak adierazi du beraiek subrogazioari ate guztiak ireki dizkiotela, baina hori baino gehiago ezin dutela egin.

Jone Urdanpilletak esan du I. Eranskinean jasotzen direla gaur egun GSR enpresak dituen langileak.

Ezaugarriekin jarraitu du esanez 22. puntuaren esleipenaren prozedura jasotzen dela eta puntuazioa nola izango den azaldu du.

Olatz de Miguelek lan baldintzei buruz zehaztu du Gipuzkoako lan-hitzarmenaren gain gaur egun GSR enpresak aplikatzen dituen hobekuntzak langile berriei ere aplikatzea. Puntuatzen dena da langile berririk egongo balitz, eta ez dakigunez ze enpresa sartuko den eta ezta ere ze lan-hitzarmen izango duen, langile berri horien lan-baldintzak langile zaharrekiko berdinak izatea.

Ondoren, Jone Urdanpilletak plegu teknikoetan jasotzen dena azaldu du, plaza kopuruak, egutegi eta ordutegiak, giza-baliabideen antolamendua, mantentze planak.

Alkateak azpimarratu du hau izango dela estilo honetako egingo duten kontrataziorik garrantzitsuenetakoa, bai ekonomikoki baina baita ere sozialki duen kargagatik. Gaur egun zerbitzu hau oraingoz udalak ematen duela dio, nahiz eta teorian Diputazioaren esku egon beharko lukeen, eta esfortzu handia suposatzen duela adierazi du baina, era berean, daukan inpaktu soziala eta herritarrei ematen zaien zerbitzua kalitateko zerbitzua dela dio eta udalak apustu horrekin jarraituko duela gaineratu du.

Josune Urkolak orain arteko esleipenaren denborari buruz galdetu du eta erantzun zaio 4 urtekoa izan dela, bi gehi bat gehi bat, eta eguneko zentroa sortu zenetik GSR enpresa dagoela esan zaio.

Jone Urdanpilletak gaineratu du enpresak herriarekiko begirune bat baduela eta herriko langileak hartzen dituela.

“Esp. Zkia.: ID.05/2017-0375

1.- AURREKINAK

Sektore Publikoen Kontratuen Testu Bategina arautzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 109. artikuluan xedatutakoaren arabera, kontratazio espedienteari ahalmena duen organoak eman behar dio hasera, kontratuaren beharra justifikatuz, lege berdinarekin 22. artikuluan xedatutako moduan.



Usurbilgo Udala

Artikulu berean xedatzen denez, esleipen-jardunbidea osatzen duten jarduketak hasi baino lehen kontratazio-espeditentea egin behar da. Eta bertan jasoko dira, besteak beste, Administrazio Baldintza Zehatzen Orriak, Baldintza Teknikoen orriak eta kreditu agiria.

Adineko pertsonentzako Usurbilgo eguneko zentroaren erabilera eta kudeaketa zerbitzua emakida modalitatean esleitzeko kontratazio espeditenteari hasiera eman nahi zaio ondoko ezaugarriekin:

1.-Unitate sustatzailea: ONGIZATE SAILA

2.-Unitate hartzailea: IDAZKARITZA-KONTRATAZIOA

3.-Kontratuaren gaia helburua: Usurbilgo eguneko zentroaren erabilera eta kudeaketa zerbitzua emakida modalitatean

4.-Zerbitzua kontratatzearen beharra edo egokitasuna: Foru Aldundiaren eskumenekoa da adineko pertsonen eguneko zentroa. 2014ko otsailaren 20an Usurbilgo Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuak Hitzarmena sinatu zuten, Udal Eguneko zentroak plazak hitzartzeko eta hitzarmenaren arabera, zerbitzu publiko hau Usurbilgo Udalak eman behar du. Usurbilgo Udalak ez du eguneko zentroko zerbitzuaren kudeaketarako langilerik. Kontratu honetan esleipendunak enpresa arriskua bereganatzen du, prezioa plaza/egunekoa baita, eta udalak hortaz, betetako plaza bakoitzeko ordaintzen baitu. Beraz, esleipendunak ez du kobratzen hutsik dauden plazekiko, eta hortaz, bere kostu finkoak asumitu egin behar ditu, gutxiago edo gehiago kobratuz, beteta dagoen plaza kopuruaren arabera.


5.-Lizitazio prezioa:

Ondorengo gehieneko lizitazio tipoak ezarri dira. Lizitatzailleek, bestalde, zenbateko horiek hobetu ahal izango dituzte egiten dituzten eskaintzetan, beherapena eginda:

- 50 €/egun eta plazako astelehenetik ostiralera (%4 BEZ barne 52 euro)
- 52 €/egun eta plazako asteburu eta jaiegunetan (%4 BEZ barne 54,08 euro)

Urteko aurrekontuaren estimazioa 260.220 eurotako da (BEZ-ik gabe), %4 BEZ-a 10.408,80 euro), guztira BEZ barne 270.628,80 euro. Kontratuaren hasierako iraupenerako aurreikuspena (3 urte), BEZ-ik gabe 780.660 euro dira, BEZ-a % 4-a 31.226,40 euro eta hortaz guztira BEZ barne 811.886,40 euro estimatzen dira.

Luzapen guztiak barne, guztira estimaturiko kontratuaren bolumen ekonomikoa 1.301.100 euro da (BEZ-ik gabe), eta %4a BEZ (52.044 euro) barne guztira 1.353.144 euro.



Usurbilgo Udala

Guzti hau kontutan izanik, Osasun eta Gizarte Zerbitzuen Batzordeak 2017ko irailaren 21ean egindako bilkuran, Jone Urdanpilleta, Josune Estella, Josune Urkola eta Fermin Orue-Echevarriaren aldeko bozkekin, aho batez, luzatutako irizpena kontutan hartuta, Udalbatzarrak aho batez honako erabakia hartu du:

ERABAKIA

LEHENA: Prozedura ireki eta ohikoaren bitartez adineko pertsonentzako Usurbilgo eguneko zentroaren erabilera eta kudeaketa zerbitzua emakida modalitatean esleitzeko kontratazio espedienteari onespena ematea.

BIGARRENA: Aipatu kontratua gauzatzeko, jarduteko eta esleipenerako oinarri bezala erabiliko diren Administrazio Baldintza Zehatzen Orriei eta Preskripzio Teknikoen orriei onespena ematea.

HIRUGARRENA: Goian aipatutako gaiak zehazten duen kontratua burutu ahal izateko gastua onartzea, 2017 urterako 29.815 euro 1.8000.227.231.01.04 partidaren kontura (A 503/2017).

LAUGARRENA: PTKLSTB-k xedatutakoaren arabera, lizitazio iragarkia GAO-ra bidaltzea eta kontratatzaile profilean horren berri ematea.”

Bozketa egin denean, honako emaitza izan da:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Miren Josune Estella Arranz, Jose Mari Iribar Zapirain, Josune Urkola Larrarte, Carlos Perez Fraisoli eta Fermin Orue-Echevarria Iturri.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

Alkateak batzarraldia bukatutzat eman du arratsaldeko 17:15etan eta bilera agiri hau jaso da, alkateak izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.